



GOBERNU BATZARRA

2025.04.08

Alkatea:
Angel Martinez de Rituerto Arregi

Bertaratutako zinegotziak:
Kristina Pelaez Errazkin
Ander Figuerido Zubiria
Aitor Agirresarobe Murgi

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko apirilaren zortzian, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

Ez dira bertaratu:
Estitxu Kortejarena Ugarte
Goiuri Ezeiza Arandia

1. Akta hau onartzea: 2025eko martxoaren 25ekoa.

2. Onartzea Tolosako Udalak Korreo kaleko 11. zenbakian duen lokala erabiltzeko baimena ematea Asmo Berri guraso elkarteari.

Udal idazkaria:
Sara Berasategui Fuertes

3. Onartzea Beotibar frontoiaren lagapena eskuzko pilota profesional ikuskizunak antolatzeke eta pilotarako zaletasuna bultzatzeko hitzarmena sinatzea.

Kontu-hartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

4. Dekretu hauen berri ematea:

2025/920 Dekretua: 2025/6 faktura zerrendak.

2025/870 Dekretua: 2025/7 faktura zerrendak.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2025EKO MARTXOAREN 25EKOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.



2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAK KORREO KALEKO 11. ZENBAKIAN DUEN LOKALA ERABILTZEKO BAIMENA EMATEA ASMO BERRI GURASO ELKARTEARI.

IKUSIRIK

LEHENA.- Eskaera hau aurkeztu duela Amalia Gonzalez Zeberio, Asmo Berri guraso elkartearen izenean, 2025eko otsailaren 13an (sarrera-erregistroko zenbakia: 2025-2218): Tolosako Udalak Korreo kaleko 11. zenbakian duen lokala erabiltzeko baimena. Udalak errekerimendua eginda, aurkeztutako agirietan zeuden akatsak zuzendu ditu ordezkariak 2025eko martxoaren 10ean (sarrera-erregistroko zenbakia: 2025-3197).

BIGARRENA.- Lokala erabiltzearen xedea honako hau dela: Orixe institutuko ikasleek ikasturte amaierako bidaiarako materiala gordetzeko leku bat izatea Tolosa erdigunean, kalean postua jarri behar duten aldi bakoitzean Orixe institututik ekarri behar ez izateko.

HIRUGARRENA.- Honako hauek direla erabiltzeko eskatutako lokalaren ezaugarriak:

Deskribapena:	Epigrafea: Hiri-higiezina Zenbakia: 1.1.000073 Izen ezaguna: Korreo kalea 11ko beheko solairuko lokala Kokapena: Korreo kalea, 11 Erabilera: Erabilerarik gabe Orubearen azalera: 8,00 m2 Eraikitako azalera: 8,00 m2 Erosketa-data: 1999-11-15 Forma: Salerosketa Balioa: 0,00 € Jabetza Erregistroa: Liburukia: 1.406. Liburua: 198. Folioa: 71. Finka: 9790. Inskripzioa: 4
Ekipamendua:	Ez dagokio.

LAUGARRENA.- Eskatutako lokalak gaur egun ez daukala inolako erabilerarik.



KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2025eko martxoaren 11n egindako txostenean, proposatu duela demaniozko baimena ematea elkarteari, Korreo kaleko 11. zenbakiko lokala erabiltzeko, betiere ikasbidaiarako materiala gordetzeko. Proposatu du baimena 2026ko ekainaren 30era arte ematea, eta lokala dohainik uztea. Horrez gain, demaniozko baimenari hainbat baldintza jartzea proposatu du, eta kalteen erantzukizun-poliza eskatzea interesdunari, gutxienez 300.000 euroko zenbatekoarekin.

BIGARRENA.- Arkitekto teknikoak, 2025eko martxoaren 20an egindako txostenean, proposatu duela baimena ematea Korreo kaleko 11. zenbakiko lokala biltegi modura erabiltzeko, baldintza hau ezarrita: gordetako materialek arriskurik ez izatea su hartzeko.

HIRUGARRENA.- Txosten juridikoa egin duela Idazkaritza Saileko teknikariak 2025eko martxoaren 27an. Aldeko txostena eman du teknikariak. Zehaztasun batzuk egin ditu: batetik, lokala zehaztutako xederako soilik erabil daitekeela, eta, hala ez izatekotan edo betebeharrak ez betetzekotan, bertan behera geratuko dela erabilera; bestetik, txosten teknikoan jaso bezala, aseguru behar dela, 300.000 euroko zenbatekoarekin, eta poliza eta ordainagiria aurkeztu behar dela erabilera laga eta hamabost eguneko epean.

LAUGARRENA.- Esleipena ebazteko eskumena Alkatearena dela, kontuan hartuta zer zehazten duen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 artikuluan. Hala ere, Tolosako alkateak, 2023ko uztailaren 3an, 2023/1707 Alkatetza Dekretuaren bidez, erabaki zuen zenbait ahalmen Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzea, eta tartean da urtetik gorako lagapenetarako baimenak ematea. Baimen hau 2026ko ekainaren 30era artekoa denez, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio ebaztea.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Demaniozko baimena ematea Asmo Berri guraso elkarteari, Korreo kaleko 11. zenbakian kokatuta dagoen lokala erabiltzeko.

BIGARRENA.- Demaniozko baimen horrek baldintza gisa izango du helburu hau betetzea: ikasbidaiarako materiala gordetzea.



HIRUGARRENA.- Demaniozko baimen horrek erabilera honen ezaugarriak errespetatu behar ditu: batetik, epeari dagokionez, lokala erabiltzeko baimena 2026ko ekainaren 30 arte izango du; bestetik, ordutegiari dagokionez, salmentarako materiala sartzeko eta ateratzeko erabili ahalko da, oro har, larunbat goizetan. Lokala dohainik lagako da.

LAUGARRENA.- Tolosako Udalak emandako demaniozko baimenak baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Debekatuta daude jarduera hauek:

- Erabilitako lokalaren barruan ezin izango da legez kanpoko jarduerarik edo/eta pertsonen berdintasun-printzipioen aurkako jarduerarik egin. Gainera, dokumentu, publizitate, irudi edo material guztietan hizkera ez sexista erabili beharko da; emakumeen irudi diskriminatzaile eta estereotipo sexistak saihestu beharko dira; eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren edo genero-identitateen balioak biltzen hartzen dituen irudia sustatu beharko da.
- Irabazi-asmoarekin edo banakako irabaziekin egiten direnak.
- Erabiltzeko baimenean jasotzen ez den edozein jarduera.

2. Baimenduak Udal-araudiko 13. ataleko puntuan jasotako betebeharrak izango ditu:

- Baimenaren ebazpenean ezarritako erabilera-ordutegiak edo Tolosako Udalak baimentzen dizkion beste batzuk errespetatzea.
- Espazioa elkarre edo kolektiboaren helburuetarako erabiltzea.
- Lokalean hirugarrenen inolako merkataritza-publizitaterik ez egitea.
- Esleitutako espazioak errespetatzea.
- Erabilera komuneke espazioen helburua eta xedea errespetatzea.
- Elkarre edo kolektiboek modu arduratsuan zaindu beharko dituzte erabilera eskusiboko eta erabilera partekatuko lokalak eta higiezin osoa. Erakunde onuradunari dagokio baimenean sartutako ondasun higigarriak zaintzea eta konpontzea.
- Elkarre edo kolektiboek izango dute baimendutako lokalaren mantenuko gastu arrunten ardura, Udalak justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.
- Erabilera-ordutegietan, bizilagunei enbarazurik ez eragitea eta inguruko lasaitasuna ez haustea.
- Esleitutako espazioak osasungarritasun- eta higieze-baldintza egokietan erabiltzeko moduan zaintzea.
- Lokaleko eta eraikineko giltzak zaintzea eta ateak ixtea.
- Esleitutako espazioaren erabilera hirugarrenei ez lagatzea.
- Sortzen diren anomalia, gorabehera edo arazoak Tolosako Udalari berehala jakinaraztea.
- Baimen-erabakia iraungi edo ezeztatu ondoren, Udalari itzultzea baimenaren xede diren espazio eta ondasunen erabilera.
- Udalari uneoro baimena ematea indarrean dagoen araudia eta erabilera baimentzeko erabakia betetzen dela zaintzeko jarraipen- eta ikuskapen-ahalmena balia dezan.



- Tabakoa eta edari alkoholodunak eta osasunerako kaltegarriak diren substantziak ez kontsumitzea, eta ez instalatzea haiek kontsumitzera bultzatzen duen publizitaterik, ez eta publizitate sexistarik ere.
- Beste elkarte edo kolektibo batzuei lokalaren erabilera ahalbidetzea, salbuespen gisa baimendutako unean uneko jarduerak garatzeko.
- Erabiltzaileak bete beharko du Tolosako Udalak euskararen erabileraren normalizazioari begira indarren duen plana.
- Euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan zabalduko ditu herritarrei zuzendutako komunikazioak, izan idatzizkoak, izan ahozkoak.
- Idatzizkoetan, ele bietan jartzen direnean, euskarari eman behar zaio lehentasuna. Testua euskara hutsean idatziko da hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, edo ezagunak direnean.
- Bestalde, piktograma (irudia) baten bidez adierazteko moduko mezuak piktograma hutsarekin adieraziko dira.
- Jardueretan, ahozkoan ere euskarak lehentasuna izango du.

BOSGARRENA.- Berariaz debekatzen da su har dezaketen materialak gordetzea lokalean.

SEIGARRENA.- Baimenaren indarraldia bukatutakoan, baimenduak ondo zainduta eta ondo erabilita itzuli beharko du lokala.

ZAZPIGARRENA.- Baimena duenak erantzun egin beharko du egindako jardueraren ondorioz edo soilik espazioa okupatzearen ondorioz sortutako kalteengatik. Baimenduak erantzungo du Udal honi nahiz hirugarrenei egindako kalteengatik.

ZORTZIGARRENA.- Erantzukizuneko poliza egin behar da higieziei, pertsonei edo hirugarrenei egindako kalteen aurrean erantzuteko, eta gutxieneko kopurua 300.000 eurokoa izango dela. Interesdunak justifikatu egin beharko du zehaztutako aseguru-polizak hitzartuta dituela, bai eta dagozkion ordainagiriaren ordainketak ere, erabiltzeko baimena eman eta hamabost laneguneko epean. Horrela ez balitz, erabilera-baimena bertan behera geldituko da, eta elkarrekin hustu egin beharko du lokala, eta giltzak itzuli beharko dizkio Udalari.

BEDERATZIGARRENA.- Baimena indarririk gabe geratuko da, baldin eta baimendunak ondasuna adierazitako helburuetarako erabiltzen ez badu, edo adierazitako betebeharren bat edo legez dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu.

HAMARGARRENA.- Baimenduak guztiz errespetatu beharko du udal-jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegia, herritarren erakunde eta kolektiboen aldekoa.

HAMAIKAGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Euskara eta Hezkuntza Sailari, Idazkaritza Sailari, eta Hirigintza eta Obrak Sailari.



3. ONARTZEA BEOTIBAR FRONTOIAREN LAGAPENA ESKUZKO PILOTA PROFESIONAL IKUSKIZUNAK ANTOLATZEKO ETA PILOTARAKO ZALETASUNA BULTZATZEKO HITZARMENA SINATZEA.

IKUSIRIK

LEHENA.- KOSTKA RAZQUIN jaunak (NAN zk.: 73466556-W), "KIROLZER. S.L.," sozietatearen izenean Udal honetan 2024ko azaroaren 22an, 14725 sarrera erregistroko zenbakiarekin 2024ko urriaren 1ean, Kirolzer S.L. enpresak, Usabal Kiroldegia kudeaketa hartu ondoren eta bertan dagoen dokumentazioa begiratu ondoren, Beotibar frontoiaren erabilerarako, BAIKO eta ASPE enprekin sinatutako hitzarmena berritzeko beharra dagoela adierazten duela hitzarmen proposamena egikaritzeko eskaera egin dio Tolosako Udalari.

Txosten honen arrazoia da argitzea eta zehaztea zein betebeharrak eta erantzukizunak lagatzen den Beotibar frontoiaren eskuzko pilota profesional ikuskizunak antolatzeke garaian *eskuzko profesional pilota partiduak* behar bezala gauzatzeko, eta hitzarmen proposamenean adierazitakoak bat datozen udal politikariek hartutako betebeharrak konpromisoekin edota eskaeraren aldeko txostena emateko eragozpenik dagoen behar bezala izapidetu dadin.

BIGARRENA.- ASPE JUGADORES DE PELOTA SA-k, BAIKO KIROLA SL-k, KIROLZER SL-k eta TOLOSAKO UDALA-k lau aldeek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna, eta ondorio horretarako.

HIRUGARRENA.- Babesa juridiko nahikoa badagoela hitzarmena interes orokorrari erreparatuz sinatzeko:

- I. 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 25.1. artikuluan honako hau ezartzen duela: «*Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jardura-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake*».
- I. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan finkatzen dituela toki-erakundeen eskumenak, eta tartean kirola sustatzea (17.1.19).
- II. Tolosako Udalak interesa daukala udalerrian, Beotibar pilotalekuan, eskuzko pilota sustatzeko eta pilotarako zaletasuna bultzatzeko, bai eta pilota profesionalen partiduen antolaketa sustatzeko, herri bizigarria egiteko duen helburuari lotuta:



1. Aldeek helburu dutela eskuzko pilota sustatzea eta pilotarako zaletasuna bultzatzea —betidanik egon da Tolosan—, horretarako eliteko pilotariak erakarriz herriaren eta herritarren zerbitzura.
2. Tolosako Udalak Beotibar pilotalekuaren jabetza duela, eta hori horrela izanik, haren egitekoen eta helburuen artean dagoela pilota sustatzea, eskuz zein erremintaz jokatzekoa, baita emakumeen artean kirol-modalitate desberdinen praktika orokortzea ere.
3. 2024ko abuztuaren 30ean Osoko Bilkurak udal kirol-instalazioen kudeaketa integrala egiteko kontratu publikoa esleitu zuela KIROLZER SLren alde, eta Beotibar pilotalekua dela instalazio horietako bat.
4. Kudeaketa-kontratu hori aintzat hartuta, Tolosako Udalarik dagokiola Beotibar frontoiaren kudeaketa ikuskatzea eta kontrolatzea.
5. 2024ko urriaren 1etik, KIROLZER SL enpresak bere gain hartua duela Beotibar pilotalekuaren kudeaketa osoa.

Hori horrela, betebeharrak hauek izango dituela KIROLZER SL enpresak Beotibarren kudeaketan:

- .- Instalazioa irekitzea eta ixtea
- .- Sarbidea kontrolatzea
- .- Garbiketa egitea
- .- Mantentze-zerbitzua
- .- Tarifak kobratzea
- .- Beste edozein egiteko.

6. BAIKO KIROLA SL eta ASPE PELOTA pilota-enpresek (aurrerantzean pilota profesionaleko enpresek) behin eta berriz agertu dutela interesa Tolosako kirol-instalazioak erabiltzeko, zertarako-eta pilotariak entrenatzeko, eta profesionalen pilota jaialdiak antolatzeko.

Elkarrekiko interes horren ondorioz, alderdi guztiek honako hitzarmen hau sinatzen dute, beheko klausula hauen arabera.

LAUGARRENA.- Lau aldeek Hitzarmenaren klausulak honako hauek izango direla adostu dute:

KLAUSULAK

Lehen. Xedea

Beotibar frontoian eskuzko pilota sustatzea eta pilotarako zaletasuna bultzatzea batetik, eta pilota profesionaleko partiduen antolaketa sustatzea bestetik, herria bizigarri egiteko.



Bigarrena. Entrenamenduak

Astean bi egun erreserbatuko dira urte guztian (uztailean eta abuztuan izan ezik), 11:00etik 17:00etara, bi enpresetako pilotariak entrena daitezten.

Lehentasunezko erabilera hau dela eta, pilota profesionaleko enpresetako pilotariak Usabal kiroldegiko abonua eskura dezakete, eta erabili ahal izango dituzte bai Usabalgo zerbitzuak, bai Berazubi estadiokoak, beti ere hitzartutako ordutegian, erabiltzaileen egunerokoa eta herriko klubak beharrak oztopatu gabe.

Denboraldiaren hasieran, aurreikusitako erabileren berri emango dute enpresek, betiere, Beotibar pilotalekurako adostutako egun kopurua eta ordutegia errespetatuta.

Dena dela, enpresen jarduerak errespetatu egin beharko dute eskuzko eta zestapuntako eskolen ohiko jarduna. Ez dute oztopatu behar pilotalekuko beste erabilera edo jarduerarik, denboraldi edo ikasturte bakoitzerako Tolosako Udalak antolatzen duen okupazio-planaren arabera.

Hirugarrena. Esku pilotako jaialdiak

Ohiko jaialdiak

Pilota profesionaleko enpresek, pilota jaialdiak antolatzeko, ahalik eta aurrerapen handienarekin eskatu behar diote instalazioak erabiltzeko baimena Tolosako Udalari. Jaialdietarako pilotak aukeratzeko, berriz, entrenamenduetarako utzitako egun eta ordutegiak erabili beharko dituzte.

Bestalde, KIROLZER SLeK zehatz-mehatz beteko ditu Tolosako Udalak aurretik ezarritako irizpideak.

Jaialdi bereziak

Pilota-enpresek konpromiso hau hartzen dute: Tolosako Beotibar pilotalekuan antolatuko dituzte lehen mailako lehiaketetako **5 jaialdi urtean gutxienez**, inauterietakoak barne, eta horietatik kanpo, enpresen iritziz interes sozial eta ekonomikoa dagoenean.

KIROLZER SLeK konpromisoa hartzen du jaialdi berezi horietan kantxa-ardurako laguntza teknikoa emateko.

Laugarrena. Beotibar frontoia lehentasunez erabiltzeko ordain ekonomikoa Pilota profesionaleko enpresek Beotibar frontoia erabiltzeko kostuaren ordainketa era honetan egingo da:

Pilotari profesionalek Beotibar pilotalekuan egiten duten entrenamenduagatik, pilota profesionaleko enpresa bakoitzak 1.250 €, (BEZ barne) ordainduko ditu. Ordainketa egiteko, transferentzia egin beharko da KIROLZER SLren banku-kontura, dagokion faktura jaulki ondoren. Zenbateko hori urtero eguneratuko da, kirol-instalazioen prezio publikoak urtero eguneratzearekin batera.



Pilota-enpresa bakoitzaren kontuaren likidazioa, urtero, ekainaren 30a baino lehen egingo da.

Gainera, pilota profesionaleko enpresek, kirol-denboraldi bakoitzaren hasieran, kirol material gisa hogeit hamar esku-pilota jarriko dituzte Tolosako esku-pilota eskolarako.

Bosgarrena. Sarrerak

Pilota profesionaleko enpresek **40 sarrera erreserbatuko dituzte** jubilatutako elkarrengatik. Pilota profesionaleko ikuskizunak edo jaialdiak ikusteko baimendutako **Txartela** duten jubilatuek jaialdi horietara doan sartzeko aukera izango dute txartela erakutsita. Txartel hauek Beotibar frontoiko leihatilan sarrera ofizialarengatik aldatuko dituzte, betiere, sarrera zenbakidun batengatik.

Halaber, 16 urtetik beheragoko gaztetxoek sarrera doakoa izango dute 3. Solairuko harmailetarako, jarraian aipatzen diren egoera berezietan izan ezik.

Inauterietarako sarrerak: enpresek inauterietako gonbidapen bereziak prestatuko dituzte elkarrengatik. Jaialdi bakoitzerako **20 gonbidapen** banatuko dira elkarrengatik.

Jende asko biltzen duten jaialdiak aurreikusten direnean, enpresek erretiratuen ohiko 40 sarreretatik (udal-palkoa izan ezik) denak edo batzuk baliogabetu ahal izango dituzte. Era berean, 16 urtetik beheragoko gaztetxoentzako ez da doako sarrerarik egongo. Udalari, gutxienez, astebete lehenago jakinaraziko zaio.

Era berean, pilota profesionaleko enpresek palkoko 18 sarrera jarriko dituzte Tolosako Udalaren eskura, eta ez da ezer ordaindu behar horien truke.

Sarrerak euskaraz inprimatu eta banatu behar dira.

Seigarrena. Interpretazioa

Hitzarmeneko klausulen interpretazioan zalantzarik sortzen bada, adostutako jarraipen batzordeak ebaziko du dagokion ahalmena.

Zazpigarrena. Jarraipen-batzordea.

Hitzarmen hau egoki betetzen dela bermatzeko eta balizko gorabeherak kudeatzeko, jarraipen-batzorde bat osatuko dute lau aldeek. Honako hauek osatuko dute jarraipen-batzorde hori: TOLOSAKO UDALAKO ordezkariak, KIROLZER enpresa kudeatzaileko ordezkariak ASPE JUGADORES DE PELOTA SA ordezkariak eta BAIKO KIROLA SL ordezkariak

Zortzigarrena. Edukiera

Beotibar pilotalekuaren edukiera izango da eraikinaren autobabes-planak ezartzen duena, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak xedatutakoaren arabera.

Edukiera horren berri emango zaie enpresei, eta ohiko edukierari eragiten dion beste edozein gertaeraren berri ere bai. Instalazioaren edukiera denon bistan jarriko da.



Pilota profesionaleko enpresek edukiera hori errespetatu beharko dute jaialdi guztietan. Horretarako, indarrean dagoen araudiak ezarritako kontrol-sistemak jarri beharko dituzte.

Jaialdi bakoitzeko edukieraren kontrola pilota profesionaleko enpresen erantzukizuna da, ez beste inorena, baita ez betetzeak ekar ditzakeen ondorioena ere.

Edukierari eta pilotalekuko autobabeseko planaren arabera segurtasun-neurriei dagokienez, hitzarmen hau sinatu dutenek onartzen dituzte gai horretan eskumena duen erakundeak egindako ikuskapenen emaitzak.

TOLOSAKO UDALARI, pilotalekuaren titular diren aldetik, zigorrik jartzen badiote, bai enpresaren batek edukiera gainditu duelako, bai autobabeseko planean ezarritakoa bete ez duelako, zigor hori enpresa antolatzaileak hartu beharko du bere gain.

UDALAK modu berean jokatu du KIROLZER SLrekin larrialdiko irteeretara iristeko baldintzei dagokienez, baita autobabeseko beste edozein neurri betearazteari dagokionez ere.

Beotibar frontoiko eraikinaren autobabes planaren arabera, **1.250** pertsonako edukiera baimenduta dago, eta honela dago solairuz banatuta:

KANTXA 0

453 pertsona (379 eserita +74 zutik)

PALKOA +1

246 pertsona (156 eserita + 90 zutik)

HARMAILAK +2

551 pertsona eserita (200 errebotean h. + 351 zeharkako h.)

Bederatzigarrena. Aseguruak

Hitzarmen honetan parte hartzen duten enpresek indarrean eduki beharko dute haien kudeaketa eremuari dagokion erantzukizun zibileko aseguru-poliza.

Hamargarrena. Publizitatea

Enpresek pilotalekuan duten jardunak eta pilota-jaialdietan jartzen duten publizitateak honako legedi hau bete beharko dute: 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.

Era berean, enpresek bete beharko dute euskararen erabilerari buruzko Udal Ordenantza (10. puntua).



Enpresek jartzen duten publizitateari dagokionez —ezkerreko paretari itsatsita eta errebotean—, hormetako pintura harrotu egiten da publizitatea kentzen den bakoitzean. Sortutako kalteak direla eta, enpresek haien gain hartuko dituzte pinturaren kostua eta instalazioaren arduradunak kaltetutako eremuak konpontzen pasatutako orduak. KIROLZER SLk kontzeptu horrek eragindako gastuak fakturatuko dizkie enpresei, enpresa bakoitzak egin duen jaialdi-kopuruaren proportzioan.

TOLOSAKO UDALAK edo KIROLZER SL enpresak kantzako hormak erabili ahal izango ditu erakunde-publizitatea egiteko, baina ezker paretako eta erreboteko 3,5 m-ko altueran sartu gabe; izan ere, tarte hori enpresek erabiliko dute pilota-jaialdietan haien publizitate-konpromisoak betetzeko.

Hamaikagarrena. Iraupena

Hitzarmen honek iraungo du 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da aldeak ados egonez gero.

Eta adostasuna adierazteko, hitzarmen hau lau kopian izenpetzen dute hasieran adierazitako egunean eta tokian.

Hamabigarrena. Iraungitzea

Hitzarmen hau iraungi egingo da 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 51. artikuluan ezartzen dituen kasuetan.

Hamahirugarrena. Izaera administratiboa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta, beraz, bere klausulek arautzen dute, eta, hala dagokionean, aplikatzekoa den legediak.

Hamalauugarrena. Legeria osagarria

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, lege-arau hauetan xedatutakoa beteko da:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak

Hamabosgarrena. Gardentasun-ataria

Hitzarmen honen testua argitaratuko da Tolosako Udalaren gardentasun-atarian.

Beraz, kontuan hartuta, batetik, Udalarentzat ez dagoela zuzeneko kostu ekonomikorik eskuzko pilota profesional partiduak antolatzeke, eta bestetik, sortzen diren gastuak eta sarrera ekonomikoak udal kirol instalazioen ustiapen kontuan txertatuko direla, eta, kontuan hartuta azkenik, sozialki, Tolosako herriari onura ekarriko diola.



Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- ASPE JUGADORES DE PELOTA SA-k, BAIKO KIROLA SL-k, KIROLZER SL-k eta TOLOSAKO UDALA-k lau aldeek *``Beotibar frontoiaren lagapena eskuzko pilota profesional ikuskizunak antolatzeke eta pilotarako zaletasuna bultzatzeko``* hitzarmena sinatzea.

BIGARRENA.- Hitzarmen honek iraungo du 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da aldeak ados egonez gero.

HIRUGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrari aipatutako elkar lanerako hitzarmena onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpen proposamena egitea.

LAUGARRENA.- Alkateari eskumena ematea *``Beotibar frontoiaren lagapena eskuzko pilota profesional ikuskizunak antolatzeke eta pilotarako zaletasuna bultzatzeko``* hitzarmena sinatzeko.

BOSGARRENA.- Erabaki hau kontuhartzaitzari eta idazkaritzari jakinaraztea.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2025/920 Dekretua: 2025/6 faktura zerrendak.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

6. zenbaki duena, 644.570,88 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENEA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

6. zenbaki duena, 644.570,88 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren ordeztasun, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.



Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2025/870 Dekretua: 2025/7 faktura zerrendak.

2025KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzailletza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:



7. zenbaki duena, 9.438,00 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

7. zenbaki duena, 9.438,00 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekursoa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekursoaren orde, edo errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurso hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari akzidental naizen honek, ziurtatua.



TOLOSAKO
UDALA

2025IGBA0009

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 09:23ean.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

ESKU642f27ee-9309-4650-9eb8-489d57288969



ERANSKINA

HITZARMENA, TOLOSAKO UDALAREN, ASPE JUGADORES DE PELOTA SA-REN, BAIKO SL-REN ETA KIROLZER SL-REN ARTEKOA

Tolosako udaletxean,

ELKARTURIK

Alde batetik, Angel Martinez de Rituerto Arregi Tolosako alkatea, Tolosako Udaleko idazkari Begoña Garmendia Vazquezek lagunduta.

Eta bestetik, Ignacio Errandonea Irazoqui (NAN: 7266394X), ASPE JUGADORES DE PELOTA SA enpresako zuzendari komertziala. Elkaratearen egoitza soziala: Eibarko San Juan kalea 5. IFK: B26265777.

Eta bestetik, Jose Ramón Garai Ituriondobeitia (NAN: 14569472F), BAIKO KIROLA SLU enpresako gerentea. Elkaratearen egoitza soziala: Bilboko Done Bikendi kalea 8, azpia (Albia eraikina). IFK: B95638763.

Eta bestetik, Kostka Razquin Sagaseta (NAN: 73466556W), KIROLZER SL enpresako gerentea. Elkaratearen egoitza soziala: Iruñeko Alfonso el Batallador 2, solairuarte. IFK: B31603996.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak TOLOSAKO UDALAREN izenean eta ordezkaritza, bat etorrita 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

Bigarrenak ASPE JUGADORES DE PELOTA SA enpresaren izenean.

Hirugarrenak BAIKO KIROLA SL enpresaren izenean.

Laugarrenak KIROLZER SL enpresaren izenean.

Lau aldeek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna, eta ondorio horretarako



AZALTZEN DUTE

- 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 25.1. artikuluan honako hau ezartzen duela: «*Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake*».
- 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17. artikuluan finkatzen dituela toki-erakundeen eskumenak, eta tartean kirola sustatzea (17.1.19).
- Tolosako Udalak interesa daukala udalerrian, Beotibar pilotalekuan, eskuzko pilota sustatzeko eta pilotarako zaletasuna bultzatzeko, bai eta pilota profesionaleko partiduen antolaketa sustatzeko, herri bizigarria egiteko duen helburuari lotuta:

- 1.- Aldeek helburu dutela eskuzko pilota sustatzea eta pilotarako zaletasuna bultzatzea —betidanik egon da Tolosan—, horretarako eliteko pilotariak erakarritu herriaren eta herritarren zerbitzura.
- 2.- Tolosako Udalak Beotibar pilotalekuaren jabetza duela, eta hori horrela izanik, haren egitekoen eta helburuen artean dagoela pilota sustatzea, eskuz zein erremintaz jokatzekoa, baita emakumeen artean kirol-modalitate desberdinen praktika orokortzea ere.
- 3.- 2024ko abuztuaren 30ean Osoko Bilkurak udal kirol-instalazioen kudeaketa integrala egiteko kontratu publikoa esleitu zuela KIROLZER SLren alde, eta Beotibar pilotalekua dela instalazio horietako bat.
- 4.- Kudeaketa-kontratu hori aintzat hartuta, Tolosako Udalarik dagokiola Beotibar frontoiaren kudeaketa ikuskatzea eta kontrolatzea.
- 5.- 2024ko urriaren 1etik, KIROLZER SL enpresak bere gain hartua duela Beotibar pilotalekuaren kudeaketa osoa.

Hori horrela, betebeharrak hauek izango dituela KIROLZER SL enpresak Beotibarren kudeaketan:

- .- Instalazioa irekitzea eta ixtea
 - .- Sarbidea kontrolatzea
 - .- Garbiketa egitea
 - .- Mantentze-zerbitzua
 - .- Tarifak kobratzea
 - .- Beste edozein egiteko.
- 6.- BAIKO KIROLA SL eta ASPE PELOTA pilota-enpresek (aurrerantzean pilota profesionaleko enpresek) behin eta berriz agertu dutela interesa Tolosako kirol-instalazioak erabiltzeko, zertarako-eta pilotariak entrenatzeko, eta profesionalen pilota jaialdiak antolatzeko.



Elkarrekiko interes horren ondorioz, alderdi guztiek honako hitzarmen hau sinatzen dute, beheko klausula hauen arabera.

KLAUSULAK

Lehena. Xedea

Beotibar frontoian eskuzko pilota sustatzea eta pilotarako zaletasuna bultzatzea batetik, eta pilota profesionaleko partiduen antolaketa sustatzea bestetik, herria bizigarri egiteko.

Bigarrena. Entrenamenduak

Astean bi egun erreserbatuko dira urte guztian (uztailean eta abuztuan izan ezik), 11:00etik 17:00etara, bi enpresetako pilotariak entrena daitezzen.

Lehentasunezko erabilera hau dela eta, pilota profesionaleko enpresetako pilotariek Usabal kiroldegiko abonua eskura dezakete, eta erabili ahal izango dituzte bai Usabalgo zerbitzuak, bai Berazubi estadiokoak, beti ere hitzartutako ordutegian, erabiltzaileen egunerokoa eta herriko klubak beharrezkoak oztokatu gabe.

Denboraldiaren hasieran, aurreikusitako erabileren berri emango dute enpresek, betiere, Beotibar pilotalekurako adostutako egun kopurua eta ordutegia errespetatuta.

Dena dela, enpresen jarduerak errespetatu egin beharko dute eskuzko eta zesta-puntako eskolen ohiko jarduna. Ez dute oztokatu behar pilotalekuko beste erabilera edo jarduerarik, denboraldi edo ikasturte bakoitzerako Tolosako Udalak antolatzen duen okupazio-planaren arabera.

Hirugarrena. Esku pilotako jaialdiak

Ohiko jaialdiak

Pilota profesionaleko enpresek, pilota jaialdiak antolatzeko, ahalik eta aurrerapen handienarekin eskatu behar diote instalazioak erabiltzeko baimena Tolosako Udalari. Jaialdietarako pilotak aukeratzeko, berriz, entrenamenduetarako utzitako egun eta ordutegiak erabili beharko dituzte.

Bestalde, KIROLZER SLeK zehatz-mehatz beteko ditu Tolosako Udalak aurretik ezarritako irizpideak.

Jaialdi bereziak

Pilota-enpresek konpromiso hau hartzen dute: Tolosako Beotibar pilotalekuan antolatuko dituzte lehen mailako lehiaketetako **5 jaialdi urtean gutxienez**, inauterietakoak barne, eta horietatik kanpo, enpresen iritziz interes sozial eta ekonomikoa dagoenean.



KIROLZER SLeK konpromisoa hartzen du jaialdi berezi horietan kantxa-ardurako laguntza teknikoa emateko.

Laugarrena. Beotibar frontoia lehentasunez erabiltzeko ordain ekonomikoa

Pilota profesionaleko enpresek Beotibar frontoia erabiltzeko kostuaren ordainketa era honetan egingo da:

Pilotari profesionalek Beotibar pilotalekuan egiten duten entrenamenduagatik, pilota profesionaleko enpresa bakoitzak 1.250 €, (BEZ barne) ordainduko ditu. Ordainketa egiteko, transferentzia egin beharko da KIROLZER SLren banku-kontura, dagokion faktura jaulki ondoren. Zenbateko hori urtero eguneratuko da, kirol-instalazioen prezio publikoak urtero eguneratzearekin batera.

Pilota-enpresa bakoitzaren kontuaren likidazioa, urtero, ekainaren 30a baino lehen egingo da.

Gainera, pilota profesionaleko enpresek, kirol-denboraldi bakoitzaren hasieran, kirol-material gisa hogeit hamar esku-pilota jarriko dituzte Tolosako esku-pilota eskolarako.

Bosgarrena. Sarrerak

Pilota profesionaleko enpresek **40 sarrera erreserbatuko dituzte** jubilatutako elkarteentzako. Pilota profesionaleko ikuskizunak edo jaialdiak ikusteko baimendutako **Txartela** duten jubilatuek jaialdi horietara doan sartzeko aukera izango dute txartela erakutsita. Txartel hauek Beotibar frontoiko leihatilan sarrera ofizialarengatik aldatuko dituzte, betiere, sarrera zenbakidun batengatik.

Halaber, 16 urtetik beheragoko gaztetxoek sarrera doakoa izango dute 3. Solairuko harmailetarako, jarraian aipatzen diren egoera berezietan izan ezik.

Inauterietarako sarrerak: enpresek inauterietako gonbidapen bereziak prestatuko dituzte elkarte hauentzako. Jaialdi bakoitzerako **20 gonbidapen** banatuko dira elkarteentzako.

Jende asko biltzen duten jaialdiak aurreikusten direnean, enpresek erretiratuen ohiko 40 sarreretatik (udal-palkoa izan ezik) denak edo batzuk baliogabetu ahal izango dituzte. Era berean, 16 urtetik beheragoko gaztetxoentzako ez da doako sarrerarik egongo. Udalari, gutxienez, astebete lehenago jakinaraziko zaio.

Era berean, pilota profesionaleko enpresek palkoko 18 sarrera jarriko dituzte Tolosako Udalaren eskura, eta ez da ezer ordaindu beharko horien truke.

Sarrerak euskaraz inprimatu eta banatu behar dira.

Seigarrena. Interpretazioa

Hitzarmeneko klausulen interpretazioan zalantzarik sortzen bada, adostutako jarraipen batzordeak ebatziko du dagokion ahalmena.



Zazpigarrena. Jarraipen-batzordea.

Hitzarmen hau egoki betetzen dela bermatzeko eta balizko gorabeherak kudeatzeko, jarraipen-batzorde bat osatuko dute lau aldeek. Honako hauek osatuko dute jarraipen-batzorde hori: TOLOSAKO UDALEKO ordezkariak, KIROLZER enpresa kudeatzaileko ordezkariak ASPE JUGADORES DE PELOTA SA ordezkariak eta BAIKO KIROLA SL ordezkariak

Zortzigarrena. Edukiera

Beotibar pilotalekuaren edukiera izango da eraikinaren autobabes-planak ezartzen duena, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak xedatutakoaren arabera.

Edukiera horren berri emango zaie enpresei, eta ohiko edukierari eragiten dion beste edozein gertaeraren berri ere bai. Instalazioaren edukiera denen bistan jarriko da.

Pilota profesionaleko enpresek edukiera hori errespetatu beharko dute jaialdi guztietan. Horretarako, indarrean dagoen araudiak ezarritako kontrol-sistemak jarri beharko dituzte.

Jaialdi bakoitzeko edukieraren kontrola pilota profesionaleko enpresen erantzukizuna da, ez beste inorena, baita ez betetzeak ekar ditzakeen ondorioena ere.

Edukierari eta pilotalekuko autobabeseko planaren arabera segurtasun-neurriei dagokienez, hitzarmen hau sinatu dutenek onartzen dituzte gai horretan eskumena duen erakundeak egindako ikuskapenen emaitzak.

TOLOSAKO UDALARI, pilotalekuaren titular diren aldetik, zigorrik jartzen badiote, bai enpresaren batek edukiera gainditu duelako, bai autobabeseko planean ezarritakoa bete ez duelako, zigor hori enpresa antolatzaileak hartu beharko du bere gain.

UDALAK modu berean jokatu du KIROLZER SLrekin larrialdiko irteeretara iristeko baldintzei dagokienez, baita autobabeseko beste edozein neurri betearazteari dagokionez ere.

Beotibar frontoiko eraikinaren autobabes planaren arabera, **1.250** pertsonako edukiera baimenduta dago, eta honela dago solairuz banatuta:

KANTXA 0

453 pertsona (379 eserita +74 zutik)

PALKOA +1

246 pertsona (156 eserita + 90 zutik)

HARMAILAK +2

551 pertsona eserita (200 errebotean h. + 351 zeharkako h.)



Bederatzigarrena. Aseguruak

Hitzarmen honetan parte hartzen duten enpresek indarrean eduki beharko dute haien kudeaketa eremuari dagokion erantzukizun zibileko aseguru-poliza.

Hamargarrena. Publizitatea

Enpresek pilotalekuan duten jardunak eta pilota-jaialdietan jartzen duten publizitateak honako legedi hau bete beharko dute: 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa; 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa; eta 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.

Era berean, enpresek bete beharko dute euskararen erabilerari buruzko Udal Ordenantza (10. puntua).

Enpresek jartzen duten publizitateari dagokionez —ezkerreko paretari itsatsita eta errebotean—, hormetako pintura harrotu egiten da publizitatea kentzen den bakoitzean. Sortutako kalteak direla eta, enpresek haien gain hartuko dituzte pinturaren kostua eta instalazioaren arduradunak kaltetutako eremuak konpontzen pasatutako orduak. KIROLZER SLk kontzeptu horrek eragindako gastuak fakturatuko dizkie enpresei, enpresa bakoitzak egin duen jaialdi-kopuruaren proportzioan.

TOLOSAKO UDALAK edo KIROLZER SL enpresak kantzako hormak erabili ahal izango ditu erakunde-publizitatea egiteko, baina ezker paretako eta erreboteko 3,5 m-ko altueran sartu gabe; izan ere, tarte hori enpresek erabiliko dute pilota-jaialdietan haien publizitate-konpromisoak betetzeko.

Hamaikagarrena. Alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoen ez betetzeak aplikatu beharreko ondorioak.

Pilota-enpresek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak; hitzartutako pilota-jaialdi profesionalen gutxienezkoa ez antolatzeagatik, udal-palkotik adostutako sarrerak ez erreserbatzeagatik, nagusien elkarrekin behar adina sarrera ez erreserbatzeagatik edo adostutako baldintza teknikoak ez betetzeagatik, 40/2015 Legearen 49.e) artikuluan xedatutakoaren arabera, ez-betetze larritzat joko da, eta Udalak isuna jarriko die ez-betetzeak egiten dituzten pilota-enpresei, hitzarmen honetan hitzartutako urteko kostuaren bikoitza.

Beotibar frontoiko legezko edukiera ez errespetatzeak buruzkoak beteko ez balira, 40/2015 Legearen 49.e) artikulua xedatutakoa jarraituz, ez betetze oso larritzat hartuko litzateke eta berehalako hitzarmenaren amaitzea ekarriko luke.

Udal kirol instalazioak kudeatzen dituen enpresak Udalak hartutako konpromisoak beteko ez balitu 2024SABI0005 kudeaketa kontratuaren ez betetzea kontsidera daiteke eta kontratu horretan ezarritako kalte ordainak aplikatuko dira.

Hamabigarrena.- Hitzarmena aldatzeko araubidea

Ez dira aldaketak onartuko hitzarmenaren lehen urtean. Aldiz, bigarren urtean aldaketak proposatu daitezke . baina proposamena aho batez onartu beharko dute alde guztiek, 40/2015 Legearen 49.e) artikulua xedatutakoaren jarraituz.

Hamahirugarrena.- Iraupena

Hitzarmen honek iraungo du 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da aldeak ados egonez gero.

Hamalauugarrena. Iraungitzea

Hitzarmen hau iraungi egingo da 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 51. artikuluan ezartzen dituen kasuetan.

Hamabosgarrena. Izaera administratiboa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta, beraz, bere klausulek arautzen dute, eta, hala dagokionean, aplikatzekoa den legediak.

Hamaseigarrena. Legeria osagarria

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, lege-arau hauetan xedatutakoa beteko da:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak

Hamazazpigarrena. Gardentasun-ataria

Hitzarmen honen testua argitaratuko da Tolosako Udalaren gardentasun-atarian

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetu dute bi aldeek, nire aurrean, sinaduran ageri den egunean, eta nik, idazkari naizen honek, horren fede ematen dut.

Alkatea
Angel Martinez de Rituerto Arregui

ASPE JUGADORES DE PELOTA SA
Ignacio Errandonea Irazoqui

BAIKO KIROLA SLU
Jose Ramón Garai Iturriondobeitia

KIROLZER SL
Kostka Razquin Sagaseta

Nire aurrean,

UDAL IDAZKARIA
Sara Berasategui Fuertes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IGBA0009-2025/04/08ko akta/2025/04/08ko akta ()